

KRISTINA SARALEGI ▶ ZERRIAREN HAZLEA

## «'Pinta' du jatorrizko izena»

Kristina Saralegik Santo Tomas ferriako zerramaren sekretu guztiak kontatu dizkigu

Leitzako Arro baserrikoa da aurten Konstituzio Plazan ikusgai jarriko duten zerrama ederra. Kultur eta Turismo Ekintzetxeak 'Afrodita' izenarekin baitaiatu du; kutsu kosmopolita eman nahian, antza. Zerramak, ordea, 'Pinta' du benetako izena. Izen jatorria, benetan. Horrez gainera, 350 kilo pisatzen dituela dio Kultur eta Turismo Ekintzetxeak, baina askoz gutxiago omen dira.

**Izen bitxi samarra jarri diozue zerrama gajoari: 'Afrodita'. Maitasunaren jainkoa, alajainak!**

Zerramari ez diogu guk izena jarri; Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak baizik. Zerramak 'Pinta' du jatorrizko izena. Baina 'Afrodita' izena jarri nahi badiote, ez gara horregatik haserretuko.

**Ez da Donostiara zerria dakartzuen lehen aldia.**

Zerri mordoxka daukagu Arro baserrian. Aspalditik hazi ditugu zerriak. Joan den urtekoa ere gure baserrikoa zen. Garai batean, aitak eramaten zuen urtero zerria Donostiara Santo Tomas egunez. Tradizioa eten egin zen, ordea. Ez dakit arrazoia. Azken bi urteotan berreskuratu dela dirudi.

**Zer jaten du zerramak. Oso tripezalea al da?**

Artoa eta garagarra jaten du, batez ere. Baita baserri inguruan aurkitzen duen guztia ere. Gaztainak, ezkurak... Zaila da esaten zerriak zenbat jaten duen egunero. Sei kilo inguru, nonbait.

**Animaliak 450 kilo omen ditu. Zerria baino, zezena dirudi.**

Oraindik ez dugu zerrama pisatu. Baina gutxiago pisatzen duela uste dut; 350 eta 400 kilo artean ibiliko da, ziurrenik.

**Zerrama zotz egitea debekatu dute. Hala eta guztiz ere, patu petrala izango du animaliak, ezta?**

Santo Tomas eguna pasatu eta gero, gure baserriera itzuliko da berriro ere. Ez dugu hilko, ordea. Zerrama oso gaztea baita oraindik. Hiru urte besterik ez ditu. Tarte horretan, bitan umatu da.

**Atsegin al duzu Santo Tomas eguneko giroa?**

Giro aparta izaten da Konstituzio plazan eta inguruko txokotan. Jai izanez gero, egun polita da. Aukerakoa. Guk, ordea, egun horretan lan egin behar izaten dugu. Beraz, ezin jaia behar bezala gozatu. Aurten,

zerria ekartzeaz gainera, taloak ere egingo ditugu.

**Saralegitarrak ezagunak zarete herri kirolean. Aizkolari ibilia zara zu.**

Aizkolari ibilia naiz, baina utzi

egin nuen. Beste neska bat ere bazebilen aizkoran. Hark utzi eta gutxira utzi nuen nik. Bestela, jarraituko nukeen, agian. Gaur egun, baserriko lanetan nabil. Eta, horrekin, nahiko lan.



Kristina Saralegi, zerraren hazlea. TOLOSALDEKO ETA LEITZAKO HITZA

2006ko URTARRILAREN 9tik AURRERA, ALDATU PUNTUAK OPARIEN TRUKE.

**Aurtengo Gabonetan, batu puntuak eta eraman.**

kutxako zure kreditu-txartelarekin erosita, puntuak batu eta opariak irabazten dituzu.

Aurtengo Gabonetan ere, kutxako Visa Classic, Visa Urre, MasterCard Urdin edo e-Business txartelekin ordaintzen duzun bakoitzeko, puntuak irabaziko dituzu; eta opari bikainak eskuratuko ere bai, bildutako puntuen truke. Oraindik kreditu-txartelrik gabe bazarede, eskatu gure bulegoetan.

www.kutxa.net

kutxa  
zure diruaren bako erantsia